

Merkatuaren segmentazioa

- Gure bezeroak pertsona bidaiarien artean kokatzen dira, izan ere, lehen esan bezala, gure zerbitzua maletak edo ekipamenduak gordetzeko balio du. Baita mugikorra edo gailu elektronikoak kargatzeko ere. Beraz, gure bezeroak sail horietan sartzen diren pertsonen artean kokatuko zirela esan dezakegu.
- Nitxo osatutako merkatua da, hau da, bezero oso zehatzak eta bereiztuak dituen segmentua izango da gure zerbitzua. Gure kasuan, etorriko diren bezeroak maleta bat gordetzeko tokia behar dutenak edo mugikorra modu seguru batean kargatzeko tokia behar duten bezeroak izango dira gehienbat. Horrez gain, segmentatutako merkatua dela esan dezakegu, behar eta arazo zertxobait ezberdinak dituzten bezeroentzat pentsatuta dagoelako, hau da, ez da gure egunerokoan ikusi dezakegun zerbitzu ohiko bat. Bezeroen segmentazioaren arabera, plataforma edo merkatu multilateralak ere sailkatu ahal dugu. Merkatu horien oinarria behar ezberdinak, eta zerbitzu desberdinak baina hauek bata bestearen mendekoak direlako. Gure kasuan maletak edo ekipamenduak lagatzerakoan objektu pertsonalak utzi ahal dira.